

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

162

AGINDUA, 2016ko azaroaren 28koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailean behin-behineko langile bat izendatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28. artikulua ematen dizkidan ahalmezez baliatuta, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak emandako txostenarekin bat etorritik eta horretarako aurrekontu-kreditua badagoela aintzat hartuta, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Ana Esther Furundarena Olabarriaga andrea izendatzea Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Nekazaritzako eta Arrantzako aholkulari (kodea: 5262; 1. dotazioa; zuzendari-maila).

Bigarrena.– Aholkulari-lanpostu baten berezko atazak bete beharko ditu, bai eta atxikita dagoen arloko ataza espezifikoak ere.

Hirugarrena.– Interesdunak eskubidea izango du, horretarako lege eskatutako baldintzak betetzen baditu, honako artikulua hauetan bildutako aurreikuspen guztiak edo haietako zenbait aplikatu dakizkion: Goi-kargudunen Lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1998 Legearen 3.1, 5.1 edo 5.2 artikulua.

Laugarrena.– Izendapen honek 2016ko azaroaren 28tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Halaber, agindu honen bidez ezartzen den zerbitzu-harremana berez azkenduko da, izendapena egin duen organoko titularrak kargua uzten duenean. Dena den, izendapena edozein momentutan indargabetu ahal izango da.

Bosgarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zaio agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 28a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.